

Txirulari Magikoa

Claudio Casadio-k
sortua



PARAISO ANTZERKIA

GIDA DIDAKTIKOA

AURKEZPENAREN AURRETIK EGITEKO EKINTZAK.

Gertaera artistiko batetara joateko gertatzen garenean “arteari” orokorrean lehentasuna ematen diogu, gizakiaren adierazpena baita hau. Gainera, zuzenean egiten den Arte mota honek dituen ezaugarri berezietara gertutik bizitzea suposatzen du.

Premisa honetan oinarrituta gure ikusleen oroimena aktibatzen eta antzezpenean parte hartzen bultzatzeko zenbait ekintza proposatzen dizkizuegu.

1. IKUSLEAREN OROITZAPENAK.

Seguruenik ez da zuen ikasleak antzerki ikuskizun batetara joango diren lehen aldia izango, baina... zein sentsazio, irudi edo hitz mantendu dira beraien oroimenean? Zergatik?

Oroitzapen hauek bide desberdinetatik abiatuz piztu ditzakegu:

- ★ Antzerkira azkenengo aldiz noiz joan diren.
- ★ Zirrara sortarazi digun edo dibertitu gaituen aktore bat.
- ★ Pertsonaia berezi bat, zeinen abenturek hunkitu gaituzten.
- ★ Buruan grabatuta gelditu zaigun irudi bat.
- ★ Espazio eszeniko bat aukeratzekotan, zein izango litzateke?
- ★ Hitz egiteko oroimen bat eta ahazteko beste bat.



2. OROITZAPENEN KUTXAN BILA.

Ikasgelara nolabait Txirulari Magikoarekin lotura duen objekturen bat eraman dezakegu (arratoi bat, txirula, txapla...). Objektu hauek aurkeztu eta gero “Txirulari Magikoa” izenburua duen antzerki bat ikustera joango gara azalduko diegu.

Eta, zer dakigu ba guk berari buruz edo bere istorioaz? Bila dezagun oroitzapenen kutxan!

Banaka, haur bakoitzak aurkeztu den objektua hartuko du eta istorioari buruzko oroitzapen pertsonal bat partekatuko du besteekin. Oroitzapen guztiak batuta, istorioa berreraiki dezakegu gutxi gora behera, baina baliteke antzokian eskaintzen diguten istorioa desberdina izatea. Goazen ikustera!

TXIRULARI MAGIKOA.

ANTZERKIA

Paraíso Antzerkiaren obra honek “BREMENGO MUSIKARIAK” obrarekin hasitako bidea jarraitzen du, hau da ipuin klasikoetara dramaturgia garaikideen bidez gerturatzea.



Kasu honetan ipuin tradizioaletik eta Michel Endek “HAMELINGO TXIRULARIA” ipuinaren operako bertsiotik abiatuko gara. Musika agertokian egongo da berriz ere bizitza, haurrak etorkizun hobeago batetako itxaropen bezala agertzen diren istorio batetan eraldatzen duen elementu gisa.

Ezkutuko hitzarmen bat dago Saguen Jaunaren eta Hamelingo Alkatearen artean. Saguek janari eta Alkateak urrezko txanpon gosea daukate. Hori dela eta, inbasio handi bat gertatu da. Hamelin hiri lasaia, Alkate xuhur eta ustel batek gobernatzen du eta hiriaren ongizatea sakrifikatzeko prest dago berak aberastasuna lortzek.

Alkatearen alabak, ezer jakin gabe, bere aitari konponbide bat aurkitzeko eskatzen dio. Iragarkiak argitaratzen dira eta azokan bezala, pregoilariak, asmatzaileak eta kalakariak iristen dira baina dena alferrikakoa da. Txirulari Magikoaren musikak bakarrik iragarriko du sagu izurriaren amaiera. Baina horretarako beharrezkoa izango da Alkatearen alabak, neska-mutilekin batera, Txirulariari arazoa konpontzen laguntzea hirian itxaropena ezartzeko.

Azkenean zirkoko kaiola batean betiko geldituko da karraskarien arrazako ale bitxiena. Hiru aktorek eramango dute plazarik plaza, behin eta berriz, akordeoiaren soinuaren laguntzarekin, Hamelingo Txirulariaren kondaira zahar eta zoragarria kontatzen duten bitartean.

Ez da ipuin bat bakarrik: ikusle gazteak gobernatzaileen zintzotasunaren garrantziaren gaineko hausnarketa egitera bultzatzen dituen errima, musika eta antzerki joko bat da. Munduaren historia, neska-mutikoen ekintzen eta desioen arabera aldatu daitekeen errealitate bat bezala aurkezten da.



ARTEAREKIN JOLASEAN.

ADIERAZPEN ARTISTIKOAREKIN ZERIKUSIA DUTEN EKINTZAK IKASGELAN

Antzerki antzezpen bat ikustea gertaera zirrargarria da eta abiapuntu on bat izan daiteke ikasgelan ekintza artistikoak garatzeko. "HAMELINGO TXIRULARIA" zuhurkeriaren, ustelkeriaren, berekoikeriaren arriskuez hitz egiten duen obra da, baina baita itxaropenaz, jendearen botereaz, poztasunaz, musikaz...



Gai desberdin eta iradokitzaile ugari daude eta hauek ikasgelan jorrazteko mila modu desberdin daude. Dударik gabe, taldearen aukerak eta beharrak ongien ezagutzen dituen pertsona gela bakoitzeko tutorea da, berak marraztu beharko du bakoitzaren sormenezko eta sentimenduzko ikerketa bidea. Lan ildoak zeintzuk izan daitezkeen jakiteko eta zenbait ideia emateko helburuarekin, artearekin esperimintatzeko eta jolasteko jarrai

daitezkeen zenbait proposamen deskribatuko ditugu jarraian.

1. ISTORIOAK ASMATZEN

Istori bat entzuten duenak eta asmatzen duenak eta kontatzen duenak gozatzeko egiten den oso gauza polita da. Gimm anaiek idatzi zuten "HAMELINGO TXIRULARIA" eta guk honekin jolastu eta inprobisatu dugu istorio berri bat eratu arte. Gianni Rodari maisu handiaren pausoak jarraituz jolastea proposatzen dizuegu, hau da, ipuinekin inprobisatzea istorio berriak sortzeko.

- ★ **Hitz galdua:** Haurrei bost hitzez osatutako segida logiko bat emango zaie, bertan logika hau hautsiko duen seigarren hitz bat egongo da. Adibidez, Edurne Zuriren istorioa iradokitzen duten bost hitz eta hau testuingurutik ateratzen duen bat: "Printzesa", "amaordea", "basoa", "sagarra", "ipotxak" eta..."hegazkina". Hitz hauetatik abiatuz istorio bat eratu beharko da. Jarduera honekin neska-mutikoek elementu berri baten aurrean erreakzionatzeko duten gaitasuna frogatu ahal izango da. Istori klasikoa testuinguru berri batean hasiko da bizitzen, sorpresaz betetako istorio berriak sortzea ahalbidetuz.



★ **Binomio fantastikoa:** Ikasle batek hitz bat idatziko du orri batean, beste inork ikusi gabe, beste batek, guztion aurrean, arbelean beste hitz bat idatziko du. Bi hitzak lotu egin beharko dira eta horrela lortuko ditugu istorio fantastiko bat sortzeko osagaiak.

★ **Zer gertatuko litzateke...:** Proposamen hau martxan jartzeko galdera hau egin beharko dugu: zer gertatuko litzateke...balitz? Subjektu bat eta predikatu bat aukeratuko dira zorian. Bien loturak emango digute, lanean hasteko hipotesia. Subjektu bat jarriko dugu adibide bezala: “ hiru txerrikoen etxea” eta predikatua “urez inguratuta” izango da. Zer gertatuko litzateke hiru txerrikoen etxea urez inguratuta egongo balitz?



2. MUSIKA MAISU

Egin beharreko lehenengo gauza ikuskizuna gogoratzea eta honek transmititu dizkigun emozioak adieraztea izango da: sorpresa, goxotasuna, tentsioa, gozamina...Musikak agertokian izan duen garrantzia eta agertu diren musika-tresnak gogoraraziko ditugu. Zeintzuk ziren? Ezagutzen al ditugu? Beste zein musika tresna ezagutzen ditugu? Gutariko norbaitek jotzen al du musika tresnarik?

Musika tresna familia desberdinez hitz egin dezakegu hauen argazkiak edo marrazkiak behatzen ditugun bitartean. Musika estilo desberdinak entzungo ditugu eta ikasleren baten musika tresnarik jotzen badu kontzertu bat antolatuko dugu.



Lanerako beste ildo bat, gure musika tresnak guk geuk eraikitzea izan daiteke. Modu errazena haizezko tresnak egitea da: turutekin, ondoren birziklatutako materialak ere gehitu daitezke (plastikozko edo kartoizko tutuak, apaindurak...) Perkusiozko tresnak ere egin daitezke poteak, kaxak eta latak erabiliz.

Interesgarria da ikuskizuna gogoraraztea txirularen soinuk hira nola askatzen duen saguen izurritik gogoratzeko. Hamelingo txirulariak bezala tresna magiko bat izango bagenu zer uxatuko genukeen pentsatu dezakegu.

3. GURE HIRIA

“TXIRULARI MAGIKOA” obran Hamelin hiria agintari xuhur eta ustel batek gobernatzen du. Zorionez txirulariaren musikak eta neska-mutikoeek hiria askatzen dute. Nola zuzenduko genuke guk hiri bat?

Hiri propioa asmatzea proposatzen dugu, izen bat jartzea, nolakoa izango den erabaki, nola biziko garen eta nola antolatuko garen pentsatu, erabakiak nork hartuko dituen, bertako jendeak zer egingo duen, etxeak zein koloretakoak izango diren asmatu... Hiriari buruz idatz dezakegu, marraztu, plano bat egin edo maketa bat.



Lan hau talde txikietan egin daiteke eta ondoren proiektu bakoitza gainontzekoei aurkeztu daiteke edo bestela, denon artean gelako ideia guztiak batuz.

4. DISKURTSOAK EGITEN

Aurreko jarduerarekin lotuta edo modu autonomoan egin daiteke eta haur bakoitzak bera bizi den herriko edo hiriko gauza onak adierazten dituen testutxo bat idaztean datza.

